

EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA
TRATAERA SOZIOEKONOMIKOA
ETA KLASE SOZIALEN
ERREPRESENTAZIOA, 2010

Bezeroak:



AURKIBIDEA

SARRERA	6
IKERKETAREN MARKO TEORIKOA	8
METODOZKO OHARRAK	10
A. EITBKO ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA	14
B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA	16
1 ALBISTEEN ANTOLAKETA	17
1.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA	17
1.2 TITULARRETAKO DENBORA ATALKA	18
1.3 ALBISTEEN DENBORAK ATALKA	19
1.4 ALBISTEEN ORDENA ATALKA	20
C. BLOKE TEMATIKOA	21
1. TEMATIKA	22
1.1. TEMATIKA OROKORRA	22
1.2. EKONOMIA ATALEKO TEMATIKA	24
2. ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOAK	25
2.1 ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOAK	25
2.2 ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOEN BANAKETA	26
D. TRATAERA SOZIO-EKONOMIKOAREN AZTERKETA	27
1 SUBJEKTUAK	28
1.1 AGERPENAK	28
1.1.1 Agerpenak klasearen arabera	28
1.1.2 Agerpenak klasearen arabera Ekonomia atalean	28
1.1.3 Subjektuak klasearen araberrako agerpenak atalka	29
1.1.4 Subjektuak agertzeko modua	30
1.1.5 Subjektuen funtzioa albistean	31
1.2 DENBORA	32
1.2.1 Subjektuei eskaintzen zaien denbora klasearen arabera (segundoka)	32
2 ESTEREOTIPOAK	33
2.1. KLASE ENPRESARIALA	33
2.2. KLASE INSTITUZIONALA	34
2.3. LANGILE KLASEA	35
3 BALOREAK	36
4 AZTERKETA IKONIKOA	37
4.1. ESTEREOTIPOAK	37
4.1.1 Klase enpresariala	37
4.1.2 Klase instituzionala	37
4.1.3 Langile klasea	38
E. GAI ESPEZIFIKOAK	39
1 KRISIALDI EKONOMIKOA	40
1.1 KRISIALDIA BALORATZEKO FAKTOREAK	40
1.2 KRISIALDI ALBISTETAKO SUBJEKTUAK	41

2	EEEAK-----	42
3	LANGABEZIA-----	43
4	LAN ISTRIPUAK-----	44
4.1	<i>GERTAKARIEN TRATAERA</i> -----	44
4.2	<i>TESTUINGURU MOTA</i> -----	44
4.3	<i>ERANTZUKIZUNA</i> -----	45
4.4	<i>ERREAKZIOAK</i> -----	46
4.4.1	Erreakzioak-----	46
4.4.2	Erreakzioen protagonistak-----	46
F.	ONDORIO NAGUSIAK-----	47
I.	ERANSKINA: BEHAKETA FITXATEGIA-----	49




**EITBko ALBISTEGIEN
AZTERKETA 2010
TRATAERA SOZIOEKONOMIKOA
ETA KLASE SOZIALEN
ERREPRESENTAZIOA**

-EMAITZEN TXOSTENA-

SARRERA

Txosten honetan EITBko lau hedabideetako albistegi azterketaren datuak aurkezten dira, hain zuzen ere, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko albistegietako datuak. Aipatu azterketa 2010eko iraila eta azaroa bitartean egin da.

Bi izan dira ikerketa honen helburuak: alde batetik, albistegietan eskaintzen den egoera sozioekonomikoaren trataera informatibo-diskurtsiboa behatzea; bestalde, klase sozialen errepresentazioaren neurketa burutzea.



Txostenaren edukiei dagokionez, lehen atalean, ikerketaren **ohar metodologikoak** aurkitzen dira. Atal honetan, sortutako eduki azterketarako fitxa, kronograma, birkodetzeen azalpena, e.a. aurkezten dizugu.

Albistegi **antolaketa**ren inguruko informazioa topa daiteke bigarren atalean: albisteen ordena, agerpena eta denborak neurtuta.

Hirugarren atalean, albistegi **tematika aztertu dugu**. Hau da, zer-nolako gaiak lantzen diren eta faktore sozioekonomikoarekin nolako lotura duten aztertu dugu era berean.

Laugarren atalean, **trataera sozioekonomikoaren azterketa** burutu dugu, klase ordezkarezekin lotura duten aspektu desberdinak behatuz. Ikertutako gai zehatzaren aspektu nagusietako bat izanik, ikerketaren atalik zabalena biltzen duela ikus daiteke.

Atal honetan lau iker-arloen arabera egin dugu ikerketa:

1. *Subjektuak*. Albistegietan ikusi eta entzuten ditugun pertsonaien klasearen araberrako banaketa. Modu honetan, EITBk zein subjektuei eskaintzen dien ahotsa erantzun nahi izan zaio.
2. *Estereotipoak*. Klase sozial bakoitzari nolako estereotipoak atxikitzen zaizkion behatu dugu.
3. *Baloreak*. Elementu sozioekonomikoak dauzkaten albistean -erregistratu ditugunak- zeintzuk diren indartzen diren iritzi eta baloreak ikertu da.
4. *Azterketa ikonikoa*. Klase desberdinek nolako rolei erantzuten dieten aztertu dugu.

Bosgarren atalean, **gai espezifiko** azterketa burutu dugu. Honetarako, egoera sozioekonomiko eta sozioraborekin harreman zuzena duten gai tematikoen lanketa eta trataera informatiboa analizatu dugu.

4 izan dira atal honetan aztertu ditugun gaiak:

-Krisialdi ekonomikoa.

-Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (EEE).

-Langabezia.

-Lan istripuak.

Gai bakoitzaren baitan arazo zehatz horren difusio komunikatiboari eragiten dioten faktore desberdinak neurtu ditugu, problematikaren dimentsioaren tamaina islatzen dituzten elementu baloratiboak behatuz.

Ez dugu eskertu gabe utzi nahi lan honen osaketarako eta zuzentasunerako bere denbora, esperientzia, ezagutza eta gogoia debalde eskaini digun oro. Haien laguntzari esker, lan honen kalitatea bermatua dago. Mila esker zuei.

IKERKETAREN MARKO TEORIKOA



Komunikabideen papera garrantzi handikoa suertatzen da pertsonen sozializazio prozesuan zehar, lehentasunezko agente bezala agertuz. Beste gauza batzuen artean, iritziak sortu, baldintzatu edota egonkortzeko funtzioa betetzen dute komunikabideek.

Albistegia osatzen duten faktore desberdinek, efektu bat edo beste lortzeko ikuspegiarekin aukeratuak dira.

Aukeratu eta erakusten zaizkigunak **pentsaera kolektibo** zehatz bat sortu eta definitzeko bitartekoak dira. Kasu honetan, albistegiak botere harreman mota baten ikuspegia jendarteratzeko bitartekoak direla ulertuta, aztertu ditugu.

Botere eta aberastasunaren banaketaren azterketa funtsezko elementua izan da, zehar lerro gisa ikerketa gidatu duena.

Honetarako, esku artean duzun ikerketa, eta bere izenburuak dion moduan, bi iker arlo nagusitan berezitu dugu: trataera sozioekonomikoa, alde batetik, eta klase sozialen errepresentazioa bestetik.

Hau da, egungo eredu sozioekonomikoaren baitan ematen den botere banaketa zein modutan irudikatzen den EITBko albistegietan.

Lehenik eta behin, klase sozial kontzeptuaren argipena burutu behar da. Gaur egungo testuinguruan, eta klaseen kontzepzio zurrun eta definitibo bati atxikitzeko asmorik gabe, jendartean nagusi diren interes eta adierazpen kolektiboen bozeramaile diren talde desberdinak erregistratu nahi izan ditugu.

Ikuspegi marxista klasikoan klaseak zehazteko oinarria lan tresnen jabetza da. Hala ere, egungo errealitate sozialaren konplexutasuna kontuan hartuz eta klaseak egun nola konfiguratu diren, edo nola definitzen den eztabaida amaitezinetan sartzeko helbururik ez dugunez lan honetan, boterearekiko ... boterearekiko harremanaren arabera definitu ditugu klaseak; hau da, hiru jarrera edo egoera aurreikusi ditugu: Boterea izan, botererik ez izan eta boterea izan gabe ere hau kudeatzen dutenak.

Modu honetan, boterea nola ageri zaigun aztertu dugu (boterea zer den, alegia), eta, bestetik, botere horrekiko nolako harremanak erakusten zaizkigun. Boterearen ulerkeran, eraikuntza sozial gisa ikusita, komunikabideek duten papera berebizikoa suertatzen da.

Honegatik, klase sozialen agerpen maila izan da neurgailu garrantzizkoa, adierazpen kuantitatibo eta kualitatibo honek adierazten baitigu indar harreman honen presentzia.

Trataera sozioekonomikoaren azterketari dagokionez, botere eta aberastasun banaketaz ari garela argitu behar da. Albiste baten ikuspegi sozioekonomikoaz aritzerakoan, albiste horretan dagoen botere banaketaz ari gara. Beraz, izan langabeziaren datuak eskaintzeko adierazle motak aztertzerakoan edota klase instituzionalaren estereotipoak behatzerakoan botere banaketaren araberako "betaurrekoak" jantzi ditugu.

Marko teorikoaren atal honetan zehaztutako mugarren baitan laburbilduz, ikerketa honen xedea EITBk bere albistegien bidez sustatzen duen boterearen errepresentazioa eta bere banaketa zein den aztertzea izan da.

METODOZKO OHARRAK

XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: EITBko lau hedabideen albistegiak

Lagina:

ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko 28 albistegi saio. Hedabide bakoitzeko eta astegun bakoitzeko bana.

- **Guztira, behatutako albiste kopurua 1.065 izan da.**

Landa-lana: 2010eko irailaren 18tik azaroaren 8 bitartean.

ERABILITAKO TEKNIKA

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien klase trataera zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzezko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tartea da. Honetarako, telebistako laginean Kiroleko atala kontutan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.

Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarrizko elementua izan da, albisteak izan direlako edukien arabera azterketa egiteko erabilitako informazio unitateak. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da, modu operatibo batean albistegien hitzezko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusia da.

Albisteak tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik.

Emaitzak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez, albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoria berrietan birkodetzeen bitartez.

LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak dira, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bilduko dituen kronograma osatu dugu.

Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tarte utzi dugu, bata eta bestearen artean, berri zehatz batek eduki zezakeen "kutsadura" ondorengo egunetako albistegietan ekiditearren.

Ikerketaren azterketarako oinarritzko unitateak izan diren 1066 albiste behatu ditugu orotara.

Hedabideka, modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak izan dira aztertuak: ETB1en gaueko 20.00tan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00tan hasita.

Irratiari dagokionez, eguerdiko albistegiak landu dira: Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30ak bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00ak bitartekoa.

Orotara, 95.644 segundotako tarte jorratu izan da, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundo/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundo/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundo/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundo/489,1 minutu/9,3 ordu.

LANDA LANA

Albistegiak, irailaren 18tik azaroaren 8a bitartean emititutakoak grabatu dira, honako kronograma hau jarraituz:

	Ezaila										Urtia																	
	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
ETB2	X							X								X								X				
ETB1		X							X								X							X				
EUSKADI IRRATIA RADIO EUSKADI			X							X							X			X						X		
	Urtia										Azaia																	
	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
ETB2				X									X							X								
ETB1					X								X								X							
EUSKADI IRRATIA RADIO EUSKADI						X							X									X			X			

BEHAKETA FITXA¹, AURREKODIFIKAZIOAK ETA BERKODIFIKAZIOAK

Albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu ere. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Sakonean jorratu nahi izan diren aldagaiekin osatu dugu Azterketa Fitxa.

Fitxa honek, sarreran aipaturiko bost atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.
- *Bloke tematikoa*. Albisteetako gai tematikoak aztertu ditugu, gure ikergaia den generoaren errepresentazioarekin duten harremana neurtzeko xedez.
- *Trataera sozioekonomikoa*. Hitzeko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute. Honen baitan adierazitako lau azpiatalak jorratu ditugu: subjektuak, estereotipoak, baloreak eta azterketa ikonikoa.

Hitzeko informazioaz ari garenean, bi informazio mota hartzen dira kontuan: batetik, kazetarien adierazpenak, ahotsaz, hitz eginez entzun ditugunak; bestetik, teleprinterretan idatziz agertu direnak, hitzezkoa baita bertan ageri den informazioa.

- *Gai espezifikoa*. Atal berezitu batean aztertu dugu ikergaiarekin harreman zuzena duten zenbait gai zehatzen informazioaren lanketa. Albiste hauei nolako trataera ematen zaien izan da aztertu duguna, elementu desberdinei erreparatuta. Aztertutako gaiak hauek dira: *Krisialdi ekonomikoa, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (hemendik aurrera EEE), Langabezia eta Lan istripuak*.

Honetaz gain ere, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Aldagai bakoitzerako kategoria ezberdinen aurre-kodifikazioa egin da. Modu honetan albiste bakoitzaren behaketan agertzen ziren elementuak datu base batean jaso dira.

Behin datu basea sortu eta ustiatuta, zenbait kategoria birkodetuak izan dira, irakurlearentzat aurkezpena ulergarriagoa eta irakurterrazagoa izan dadin eta emaitzak esanguratsuak izan daitezzen.

Ikergaiarekin harreman zuzenena duen aspektua izanda, subjektuen klaseen sailkapena hiru kategoriei jarraiki egin dugu. Klasearen inguruko teorizazio maila sakonean murgildu gabe, klase enpresarial, instituzional eta langileriaren azterketa burutu dugu.

¹ Behaketan erabilitako kontzeptu zein kategoria guztiak zehazki ezagutzeko eranskinetan gehitzen dugu behaketa fitxa osorik.

Laugarren kategorian bat "Beste" bezala erregistratu dugu, eragileak modu neutro batean agertu diren kasuetarako, edota definituriko 3 kategorietako bati erreferentzia zuzena egiten ez dioten kasuetarako (kirolariak batik bat).

Jarraian, birkodetze garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

Albistearen ordena edo garrantzia: Albistegietan azalpen ordenaren arabera multzokatu ditugu albiste ezberdinak. Horrela, lehen bost albisteek *lehentasunezko albisteak* kategorian birkodetu ditugu. Seigarren albistetik hamargarrenera, berriz, *Bigarren mailako albisteen* kategorian. Beste albiste guztiak, azkena izan ezik, *Bloke nagusia* kategoriara eta azkenik, *Azken albistea* kategorian jaso ditugu albistegiak itxi dituzten albisteak.

A. EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA

ALBISTEEN ANTOLAKETA

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).
- Ekonomiako gaiek bosgarren maila batean aurkezten dira albistegietan, notizi kopuru osoaren %9,4a osatzen dutelarik.

BLOKE TEMATIKOA

- Kirola izanik lantzen den lehentasunezko gaia, informazio zedarritua begiratuta Futbola gehien eskaintzen den tematika dela ikus daiteke (%13,4a). "Laguntza sozialak" (%0,8a), "Adierazle sozioekonomikoak" (%0,8a) edota "Zerbitzu Sozialak" (%0,9a), ordea, oso presentzia urria dute.
- Ekonomiako atalean eskaintzen diren gaiei erreparatuta, presentzia gehien dutena "Ekinbide ekonomikoak (azokak...)" direla (%21a) ondorioztatzen da. Gertaera soziolaboralak %14,0a dira eta Krisialdi ekonomikoari loturikoak %12,0a.
- "Zerbitzu sozialak", "osasuna" eta "Zientzia eta Teknologia"ri buruzko albisteak, gai kopuru totalaren %3,0a dira.
- EITBko albistegietan eskaintzen diren albiste kopuruaren %9,4a Ekonomia atalean kokatuak badaude ere, ikuspegi sozioekonomikoa dutenak %13,3a dira. Ikuspegi sozioekonomikoa, beraz, ez dela Ekonomia atalean erabat integratzen ondoriozta daiteke.

TRATAERA SOZIOEKONOMIKOA

- **Subjektuei** dagokionean, agertzen diren pertsonaien %46,6a klase instituzionalekoak dira. Langile klaseko ordezkari edo kideek agerpen kopuruaren %20,4a dira eta klase enpresarialekoak %6,7a. "Beste" kategorian sailkatutakoak agerpen kopuruaren %26,1a osatzen dute.
- Subjektuei eskainitako denborari dagokionean antzeko joera ikus daiteke: klase instituzionalari denboraren %47,1a, langile klaseari %18,5a eta klase enpresarialari %8,2a. "Beste" kategoriako ordezkariari %26,2a.
- Klase instituzionalak, bestalde, Politika (%83,4a), Ekonomia (%48,9a), Nazioartea (%50,7a) eta Kultura (%72a) ataletan presentzia gehien duena da.
- Agertzeko moduari dagokionean, Klase enpresarialak dituen agerpen kasuen %80,9an Korte bidez izaten da, beraz, enpresariak protagonista direnean euren ahotsa entzun egiten da.

- Subjektuen funtzioari dagokionez, klase enpresarialak eta klase instituzionalak bozeramaile papera jokatzen duten kasuen %44,4ean eta %62,1an hurrenez hurren. Langile klasearena, ordea, %19,6koa da.
- **Estereotipoen** gaineko azterketak, klase enpresarialaren ikuspegi kolektiboaren (%60,0) irudia indartzen dela adierazten digu.
Klase instituzionalaren kasuan ere, ikuspegi kolektiboa indartzen dela adierazten digute datuok, kasuen %67,6an.
Langile klasearen kasuan, aldaera kritikatzailer (%38,1a) eta sufritzailea (%35,7a) islatzen da estereotipoen bitartez.
- Irudi bidezko estereotipoek antzeko datuak erakusten dizkigute.
- Albisteeak aurkezten dizkiguten **baloreek**, nagusiki, Lehia (%18,8a) eta Konfrontazioa (%14,6a) islatzen dizkigute.

GAI ESPEZIFIKOAK

KRISIALDI EKONOMIKOA

- Krisialdi ekonomikoaren inguruko albistek aurkezterakoan, datu ekonomikoak eskaintzen direnean BPGaren araberakoak ematen dira.
Ez dira klase edo maila sozialen araberako banaketaren inguruko daturik eskaintzen.

EEEak

- Egindako behaketan, Enplegua Erregulatzeko Espedienteei buruzko albistek kasu isolatu gisa aurkezten direla ondorioztatu dugu.
- Espedienteen aplikazioaren arrazoen trataera behatuta, merkatuaren logika propioagatik dela adierazten da kasu gehienetan.

LANGABEZIA

- Langabezia lantzen duten albistek estatistika gisa lantzen dira.
- Arrazoi edo faktore nagusiei erreparatuta ere, krisialdi ekonomikoaren eragina dela adierazten da kasu gehienetan.

LAN ISTRIPUAK

- Albistegietan lantzen diren lan istripuak albiste isolatu gisa eskaintzen dira.
- Gertakari hauek duten transzendentzia publikoari eskaintzen zaion garrantziari dagokionez, kasuen erdian, (%50,0a) gertakari horrek duen eragina bilatzen da.
Erreakzio hauek kasuen erdian, %50,0a, sindikatu edo langileriarenek eskaintzen dira, eta beste erdia, %50,0a, instituzio politikoenak.

B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA

Atal honetan EITBko albistegietan eskaintzen diren albisteak nola antolatzen diren ikusiko dugu. Gai bakoitzari eskaintzen zaion tartea zein den eta albisteetako ordena ikusiko dugu alde batetik; albistegi osoen azterketa berdina, bestetik.

Datu hauek, aztertu nahi dugun gaiaren inguruko informazio zuzena eskaintzen ez badigute ere, alegia, adiera sozioekonomikoari aipamen zuzenik egin gabe, gerora trataera sozioekonomikoa ulertzeko faktorea izango da ere.

1 ALBISTEEN ANTOLAKETA

Atal honetan, EITBn emititzen diren albisteak zeintzuk diren erakusten dizkigute datuek. Datuek albisten bloke tematikoari egiten diete erreferentzia.


1.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA

1. Albisten agerpenak atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Kirola	317	29,7
Politika	217	20,4
Jendartea	158	14,8
Kultura	134	12,6
Ekonomia	100	9,4
Nazioartea	99	9,3
Eguraldia	15	1,4
Trafikoa	13	1,2
Gertukoak	13	1,2
Guztira	1.066	100

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

A. Albisten agerpenak atalka



EITBn eskaintzen diren albisten hamarretik ia hiru (%29,7) Kirolari buruzkoak dira.

Politikari buruzko datuek bigarren maila okupatzen dute albiste kopuruen rankingean, ia hamar puntuko aldearekin.

1.2 TITULARRETAKO DENBORA ATALKA


2. Titularretako denbora atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Kirola	9.971	36,0
Politika	5.429	19,6
Kultura	4.066	14,7
Jendartea	3.898	14,1
Ekonomia	2.046	7,4
Nazioartea	1.816	6,6
Trafikoa	254	0,9
Gertukoak	221	0,8
Eguraldia	12	0,0
Guztira	27.713	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Kirola eta Politika dira, hurrenez hurren %36,0 eta %19,6arekin titularretan denbora gehien eskaintzen zaizkien albistegien atalak.

B. Titularretako denbora atalka



1.3 ALBISTEEN DENBORAK ATALKA


3. Albisteetako denborak atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Kirola	31.656	33,1
Politika	18.857	19,7
Jendartea	14.985	15,7
Kultura	10.832	11,3
Ekonomia	8.426	8,8
Nazioartea	8.260	8,6
Gertukoak	1.091	1,1
Eguraldia	1.047	1,1
Trafikoa	490	0,5
Guztira	95.644	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Albisteetan, titularrekin gertatutako antzeko fenomenoak ematen da, nagusiki Kirola eta Politikari eskaintzen zaio denbora tarterik handiena.

C. Albistetako denborak atalka



1.4 ALBISTEEN ORDENA ATALKA

4. Albisteen ordena atalka

	Lehentasunezko albistek	Bigarren mailako albistek	Bloke nagusia	Azken albistea	Guztira
Politika	60,7	42,9	9,5	0,0	20,4
Ekonomia	12,1	26,4	6,1	0,0	9,4
Nazioartea	2,9	19,3	8,8	3,6	9,3
Kultura	5,0	2,1	13,5	21,4	11,1
Jendartea	15,7	9,3	17,5	21,4	16,3
Kirola	0,0	0,0	40,0	50,0	29,7
Eguraldia	2,9	0,0	1,5	0,0	1,4
Gertukoak	0,0	0,0	1,7	0,0	1,2
Trafikoa	0,7	0,0	1,5	3,6	1,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria(kasu kopurua)</i>	140	140	758	28	1.066

Politikari buruzko albisteen lehentasunezko posizioa argia da EITBn. Lehenengo bost albistetatik %60,7a Politikari buruzkoak dira.


Albistegietako 6. eta 10. albisteen artean kokatutakoak ere kasuen %40tik gora Politikari buruzkoak dira.

Bloke zentrolean, nagusiki, %40,0 batekin, Kirolari buruz hitz egiten da.

Azken albisteari dagokionez, 2tik 1 Kirolaren inguruko berria izaten da.

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoaren agerpen eta errepresentazioa. 2010

D. Albisteen ordena atalka



C. BLOKE TEMATIKOA

Atal honetan albistegietan jorratzen diren gaiak zeintzuk diren aztertu dugu. EITBn emititzen diren albisteez nolako gaiak lantzen dituzten adierazten digun informazioa hain zuzen. Bi aztergai desberdinen bidez landu dugu behaketa hau; alde batetik, gai guztiek erakusten dizkiguten informazioa; eta bestetik, albiste sozioekonomikoen banaketaren inguruko informazioa.

1. TEMATIKA

1.1. TEMATIKA OROKORRA


5. Albistegien tematika

	Maiztasuna	Ehuneakoak (%)
Futbola	144	13,5
Artea	67	6,3
Gertaera giza edo natural dramatikoak	47	4,4
Saskibaloia	37	3,5
Kulturako beste batzuk	36	3,4
Eskupilota	33	3,1
Gatazka politikoaren irtenbideak	30	2,8
Gertaera soziolaboralak (sindikatuak)	29	2,7
Ekinbide ekonomikoak (azokak...)	29	2,7
EAEko erakundeak	28	2,6
Txirringularitza	27	2,5
ETAren aurkako ekinbidea	25	2,3
Estatuko erakundeak	24	2,3
Eskubide zibil eta politikoak	24	2,3
Nazioarteko gatazkak	20	1,9
Osasuna eta medikuntza	19	1,8
Azpiegiturak	18	1,7
Euskal kultura	18	1,7
Mundu finantzieroa	15	1,4
Erakunde lokalak	14	1,3
Krisialdi ekonomikoa	14	1,3
Nazioarteko gertakari biolentoak	14	1,3
ETAren jarduera	13	1,2
Zientzia eta teknologia (ikerketak, berrikuntza...)	13	1,2
Biolentzia soziala	13	1,2
Jasangarritasuna	12	1,1
Biolentzia sexista	11	1,0
Eskubaloia	11	1,0
Hauteskundeak	11	1,0
Zerbitzu sozialak	10	0,9
Erljioa	10	0,9
Adierazle sozioekonomikoak	9	0,8
Lan-istripuak	9	0,8
Laguntza sozialak	8	0,8
Arrauna	8	0,8
Nazioarteko erakundeak	7	0,7
Hezkuntza	7	0,7
Espainiar kultura	7	0,7
Jatorri naturaleko gertakariak	7	0,7
Ohiturak eta sinismenak	7	0,7
Atletismoa	7	0,7
Langabezia	6	0,6
"Famoseoa"	6	0,6
Nazioarte mailako batzarrak	5	0,5
Biolentzia homofobia	4	0,4
Mugimendu feminista	3	0,3
Kale Borroka	2	0,2
Genero harremanen aldaketak	2	0,2
Emakumeen aurkako biolentzia	1	0,1
Besteak	144	13,5
Guztira	1.065	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Futbolak gai guztien %13,5a aurkezten duen bitartean, adiera sozioekonomikoarekin lotura zuzena dutenak oso presentzia eskasa erakusten duten bitartean.

E. Albisten tematika



1.2. EKONOMIA ATALEKO TEMATIKA


6. Ekonomiako tematika

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ekinbide ekonomikoak (azokak...)	21	21,0
Gertaera soziolaboralak (sindikatuak)	14	14,0
Krisialdi ekonomikoa	12	12,0
Mundu Finantzieroa	11	11,0
Adierazle soziokononikoak	7	7,0
Langabezia	6	6,0
Estatuko erakundeak	4	4,0
EAEko erakundeak	4	4,0
Laguntza sozialak	3	3,0
Azpiegiturak	3	3,0
Lan-istripuak	2	2,0
Etxebizitza	2	2,0
Erakunde ekonomikoak	2	2,0
Zerbitzu sozialak	1	1,0
UGT	1	1,0
Osasuna eta medikuntza	1	1,0
Negoziaketa kolektiboak	1	1,0
Nazioarte mailako batzarrak	1	1,0
Landa ekonomia	1	1,0
Hedapen ekonomikoa	1	1,0
EREak	1	1,0
Zientzia eta teknologia	1	1,0
Guztira	100	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errerepresentazioa. 2010

Ekonomiako atalean lantzen diren gaien %21a ekinbide ekonomikoaren ingurukoak dira, eta %14a gai soziolaboralak. Zerbitzu sozialen inguruko albisteak %1a baino ez direla azpimarratu behar da.

F. Ekonomia-ko tematika (%)



2. ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOAK

Aldagai honen bitartez, emititzen diren albisteetatik zeintzuetan lantzen diren gai sozio-ekonomikoak neurtu dugu. Albistegiko Ekonomia atalean kokatuta egon edo ez, gai sozioekonomikoak lantzen dituzten albisteak erregistratu ditugu; guzti hau sozio-ekonomiaren adiera zabal batetik. Sozio-ekonomia kontzeptupean neurgailu ekonomiko hutsetatik haratago, ongizate kolektibo eta indibidualak aintzat hartzen dituen aspektuak aztertu dira era berean.

2.1 ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOAK


7. Albiste sozio-ekonomikodunak

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ez	923	86,7
Bai	142	13,3
Guztira	1065	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

Modu honetan, EITBko albistegietan lantzen diren albisten %13,3a gai sozioekonomikoak lantzen dituela ikusten dugu.

G. Albiste sozioekonomikodunak (%)



2.2 ALBISTE SOZIO-EKONOMIKOEN BANAKETA


8. Albiste sozio-ekonomikodunen banaketa

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Politika	17	12,0
Ekonomia	105	73,9
Nazioartea	13	9,2
Jendartea	5	3,5
Gertukoak	2	1,4
Guztira	142	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

Eskaintzen diren gai sozio-ekonomiko gehienak, %73,9ak, Ekonomia atalean lantzen dira.

Jendarte atalean, ordea, soilik %3,5a.



D. TRATAERA SOZIO-EKONOMIKOAREN AZTERKETA

Ikerketa honetarako definitu ditugun 3 klase sozialak modu zehatz batean aurkezten zaizkigu EITBko albistegietan eta atal hau hauetako bakoitza nola ageri zaigun aztertzeko baliatu dugu. Hots, klase bakoitza, nola eta zenbat aurkezten zaigun behatu dugu.

Bestalde, albiste bakoitzaren ikuspuntuak nolako balore sozialak transmititzen dituen neurtu eta erregistratu dugu ere. Datu hauek lau aldagai nagusien behaketatik burutu dugu: *subjektuak, estereotipoak, baloreak eta azterketa ikonikoa*.

1 SUBJEKTUAK

Atal honetan albistegietan agertzen diren pertsonaien gaineko azterketaren emaitzak aurkezten ditugu. Subjektuak gertakari informatiboaren funtsezko elementu dira, beraz, hauen presentzia mailak aurkezten digu albistegian pertsonaia batzuei edo besteei eskaintzen zaien garrantzia. Subjektuen azterketan klase sozio-ekonomikoari erreparatu diogu nagusiki, baita hauen pisua neurtzeko beste aldagaiei ere.

1.1 AGERPENAK


1.1.1 Agerpenak klasearen arabera

9. Subjektuen tipologia sozioekonomikoa

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Klase instituzionala	646	46,8
Langile klasea	282	20,4
Klase enpresariala	92	6,7
Beste	360	26,1
Guztira	1380	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

I. Subjektuen tipologia sozioekonomikoa



EITBko albistegietan agertzen diren pertsonaien %46,8a klase instituzionalekoa dela adierazten digute datuok. Klase enpresarialak %6,7ko presentzia dauka.


1.1.2 Agerpenak klasearen arabera Ekonomia atalean

10. Subjektuen agerpen kopurua Ekonomia atalean

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Klase enpresariala	28	21,1
Klase instituzionala	65	48,9
Langile klasea	40	30,1
Guztira	133	100

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

J. Subjektuen tipologia sozioekonomikoa Ekonomia atalean(%)



Ekonomia ataleko albisteetan Klase instituzionaleko subjektuak agerpenen %48,9a osatzen dute. Langile klaseak %30,1a eta klase enpresarialaren presentzia %21,1koa da.

1.1.3 Subjektuak klasearen arabera agerpenak atalka

11. Klasearen arabera subjektuen agerpenak atalka


		Politika	Ekonomia	Nazioartea	Kultura	Jendartea	Kirola	Eguraldia	Gertukoak
Klase enpresariala	Maiztasuna	8	28	4	8	35	7	0	2
	Ehunekoa(%)	2,2	21,1	2,9	6,4	15,8	1,9	0,0	14,3
Klase instituzionala	Maiztasuna	301	65	71	90	76	34	2	7
	Ehunekoa(%)	83,4	48,9	50,7	72,0	34,2	9,1	20,0	50,0
Langile klasea	Maiztasuna	46	40	61	13	96	17	4	5
	Ehunekoa(%)	12,7	30,1	43,6	10,4	43,2	4,5	40,0	35,7
Beste	Maiztasuna	6	0	4	14	15	317	4	0
	Ehunekoa(%)	1,7	0,0	2,9	11,2	6,8	84,5	40,0	0,0
Guztira	Maiztasuna	361	133	140	125	222	375	10	14
	Ehunekoa(%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

Klase instituzionala gehiengoa da atal gehienetan, batik bat presentzia nabariena Politika (%83,4a) eta Kulturaren (%72,0a) izanda.

Langileriaren kasuan, Nazioartea (%43,6a), Jendartea (%43,2a) eta Gertukoak (%35,7a) ataletan ageri dira.

Klase enpresarialari dagokionez, Ekonomian (%20,1a) dute agerpen kopuru altuena.



1.1.4 Subjektuak agertzeko modua

12. Subjektuak agertzeko modua

		Klase enpresariala	Klase instituzionala	Langile klasea	Beste
Zuzeneko konexioa	Maiztasuna	1	3	5	0
	Ehunekoak(%)	0,9	0,5	1,8	0,0
Kortea	Maiztasuna	89	390	168	144
	Ehunekoak(%)	80,9	60,5	59,6	40,0
Bideoa hitzez	Maiztasuna	20	252	109	216
	Ehunekoak(%)	18,2	39,1	38,7	60,0
Guztira	Maiztasuna	110	645	282	360
	Ehunekoak(%)	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa.2010

Klase enpresarialeko ordezkari edo kideren baten presentzia dagoenean, kasuen %80,9an Korte bidez izaten da; hau da, protagonista direnean euren hitza entzuten da.

Klase instituzionalari dagokionean, euren hitza korte bidez kasuen %60,4ean entzuteko aukera dugu.

Langile klasea ere antzeko datuetan murgiltzen da, kasuen %59,7an entzuten dugu euren ahotsa korteen bidez.

L. Subjektuak agertzeko modua (%)



1.1.5 Subjektuen funtzioa albistean


13. Subjektuen funtzioa albistean

		Klase enpresariala	Klase instituzionala	Langile klasea	Beste
Esperientzia pertsonala	Maiztasuna	44	214	191	324
	Ehunekoak(%)	48,9	33,9	69,5	91,0
Bozeramailetza	Maiztasuna	40	392	54	28
	Ehunekoak(%)	44,4	62,1	19,6	7,9
Lekukoa	Maiztasuna	2			
	Ehunekoak(%)	2,2	0,0	0,0	0,0
Aditua	Maiztasuna	4	20	7	2
	Ehunekoak(%)	4,4	3,2	2,5	0,6
Iritzi herritarra	Maiztasuna			20	
	Ehunekoak(%)	0,0	0,0	7,3	0,0
Gaia	Maiztasuna		5	3	2
	Ehunekoak(%)	0,0	0,8	1,1	0,6
Guztira	Maiztasuna	90	631	275	356
	Ehunekoak(%)	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

Klase enpresarial eta klase instituzionaleko kideak albisteko protagonista direnean, kasu gehienetan, %44,4a eta %62,1a hurrenez hurren, bozeramaile papera jokatzen dute.

Langile klasearen kasuan, datu hau %19,6a besterik ez da; %69,5ean esperientzia pertsonala kontatzearen funtzioa egozten baitzaie langileei.



1.2 DENBORA

Azpiatal honetan subjektuak "hitz egiten" entzuten ditugun kasuetan eskaintzen zaien denbora neurtu dugu.

1.2.1 Subjektuei eskaintzen zaien denbora klasearen arabera (segundoka)


14. Subjektuen denbora

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Klase instituzionala	9.359	47,1
Langile klasea	3.688	18,5
Klase enpresariala	1.633	8,2
Beste	5.205	26,2
Guztira	19.885	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Trataera sozioekonomikoa eta klase sozialen errepresentazioa. 2010

EITBko albistegietan ahotsa entzuten zaien protagonistei eskainitako denboraren %47,1a klase instituzionalarentzat izaten da. Langile klaseari denboraren %18,5a eskaintzen zaio, eta klase sozial jakin bati erantzuten ez dioten protagonistei %26,2a.

Klase enpresarialak denbora osoaren %8,2a baino ez du jokatzen.



2 ESTEREOTIPOAK

Estereotipoak klase sozioekonomiko bakoitzari egozten zaizkion rol eta jokaera sozialak dira. Estereotipoen bitartez arau eta funtzio horien sozializazioa burutzen da, zeinak onartu eta normalizat jotzen diren.

Honetarako, badira zehaztu ditugun klase bakoitzari sozialki egozten zaizkion hainbat rol eta arau. Atal honetan, bakoitzari nolako jokamoldeak egozten zaizkion behatu dugu.

2.1. KLASE ENPRESARIALA

15. Klase enpresarialaren estereotipoak


	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ikuspegi kolektiboa	15	60,0
Sortzailea(k)	7	28,0
Sufritzailea(k)	2	8,0
Ekitatiboa(k)	1	4,0
Guztira	25	100,0

Oinarria: 25 kasu

